

Euskal AEko ondasun-esportazioak % 4,0 gehitu ziren 2019ko abenduan

2019an, merkataritza-superabita handitu egin zen, eta 5.200 milioi eurotik gorakoa izan da

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko **ondasunen esportazioek** % 4,0ko igoera izan zuten 2019ko abenduan, urte arteko tasan. Zenbatekoa 1.820 milioi eurokoa izan zen, aurreko urteko hil bereko 1.750 milioien aldean. Ondasun *energetikoen* esportazioak % 32,0 jaitsi ziren, eta ez-*energetikoenak* % 9,0 hazi.

Araba da joera onena izan duen lurraldea, esportazioak % 39,6 igo baitira; Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, esportazioak % 2,4 eta % 6,7 jaitsi dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. 2019 Abendua

	ESPORTAZIOAK			IMPORTAZIOAK		
	Abendua			Abendua		
	2018	2019	Δ %	2018	2019	Δ %
EUSKAL AE						
HILEAN GUZTIRA	1.750.170	1.820.145	4,0	1.522.223	1.509.187	-0,9
PRODUKTU ENERGETIKOAK	212.625	144.683	-32,0	473.429	444.017	-6,2
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.537.545	1.675.462	9,0	1.048.794	1.065.170	1,6
URTEKO METATUA	25.487.514	25.396.938	-0,4	20.288.820	20.121.458	-0,8
PRODUKTU ENERGETIKOAK	2.566.843	2.022.885	-21,2	5.729.500	5.408.799	-5,6
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	22.920.671	23.374.053	2,0	14.559.320	14.712.659	1,1
ARABA / ÁLAVA						
HILEAN GUZTIRA	337.263	470.657	39,6	263.559	324.643	23,2
URTEKO METATUA	7.367.889	7.147.860	-3,0	4.252.162	4.183.414	-1,6
BIZKAIA						
HILEAN GUZTIRA	727.140	709.885	-2,4	934.108	871.311	-6,7
URTEKO METATUA	10.478.782	9.719.368	-7,2	11.941.440	11.694.210	-2,1
GIPUZKOA						
HILEAN GUZTIRA	685.766	639.603	-6,7	324.557	313.232	-3,5
URTEKO METATUA	7.640.842	8.529.710	11,6	4.095.218	4.243.833	3,6

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)


Euskal AEko **ondasunen inportazioak**, 1.509 milioi eurokoak, % 0,9 jaitsi ziren 2018ko abenduarekin alderatuta. Inportazio *energetikoak* % 6,2 jaitsi ziren, eta ez-*energetikoak* % 1,6 hazi.

Lurraldeka, Arabako inportazioak % 23,2 hazi dira; aldiz, Bizkaikoak % 6,7 jaitsi dira, eta Gipuzkoakoak % 3,5.

Jarduera-adar esportatzaileak (A86) aztertuz gero, ikusten da hazkunde handia izan dela hilabeteen garrantzitsuena izan denean, *Motordun ibilgailuetan* (420 milioi esportatuak), aurreko urteko hil beraren aldean % 75 gehitu baitira. *Metalezko artikulak* (% 6,0 eta 125 milioi) eta *Siderurgia* (% 5,3 eta ia 186 milioi) ere hazi dira. Aitzitik, tradizionalki esanguratsuak izan diren jarduera-adarren beherakada aipatu behar dugu, hala nola *Kokeriak* eta *petrolioaren fintzea* (130 milioi eta % 29,7 gutxiago) eta *Erabilera orokorreko makineria* (217 milioi eta % 8,7ko jaitsiera).

Xehetasunera jaitsita, abenduan hamar muga-zergeren partida nagusiek esportazioen % 42,7 bildu zituzten, 777,8 milioi euroko balio bateratuarekin. Horien artean, hazkundeagatik, nabarmentzen dira 10 pertsona baino gutxiagoko turismoak (% 116,4), *Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak* (% 101,3), *Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak* (% 21,8) eta, batez ere, 10 pertsona edo gehiago garraiatzeko ibilgailu automobilak, *gidaria barne* (% 254,6). Kontrako joera izan dute *Petrolio-olio finduek* (% 27,3 behera) eta *Kautxuzko pneumatiko berriek* (% 4,9 behera).

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera



Hilabete honetan, hamar herrialdek –Frantziak, Alemaniak, Estatu Batuek, Erresuma Batuak, Italiak, Belgikak, Herbehereek, Portugalek, Groenlandiak eta Mexikok– gure esportazioen % 63,6 bildu dituzte. Gehienak EB-28koak dira, zeinek 1.098,8 milioirekin Euskal AEko esportazioen % 60,4 bildu dituen hilabetean.

Inportazioak jarduera-adarren arabera aztertuz gero (A86) ikusten da ezen garrantzitsuenean, *Erauzketa- eta petrolio-industrietan* (guztizkoaren % 26,8), % 9,1eko jaitsiera izan dela; *Produktu siderurgikoak* ere jaitsi egin dira (-% 13,7), baina *Motordun ibilgailuen* (% 96,4) eta *Erabilera orokorreko makineriaren* (% 2,2) inportazioak gehitu egin dira.

2019KO BALANTZEA

2019an, hala esportazioak nola inportazioak % 0,4 eta % 0,8 jaitsi ziren, hurrenez hurren

Euskal AEko esportazioak 25.396,9 milioi eurora iritsi ziren 2019an, hau da, urte arteko % 0,4ko jaitsiera izan zen. Inportazioak 20.121,5 milioi eurokoak izan ziren, aurreko urtean baino % 0,8 gutxiago.




Merkataritza-saldoa positiboa izan zen, 5.275,5 milioi ingurukoa. Kopuru horrek esan nahi du merkataritza-superabita % 1,5 hazi dela aurreko urteko aldi beraren aldean (5.198,7 milioi). Merkataritza-saldo "ez-energetikoa" soilik aztertzen badugu, ikusiko dugu ezen saldo hori ere positiboa izan dela eta 8.661,4 milioira iritsi dela; beraz, aurreko urtearekin alderatuta (8.361,4 milioi), % 3,6ko hazkundera izan da.

Esportazioek inportazioen aldean duten estaldura-tasa ehuneko 0,6 puntu igo da, % 125,6tik % 126,2ra. Produktu ez-energetikoen kasuan, tasa bera % 157,4tik % 158,9ra igo da.

Gipuzkoa da lurralde bakarra non esportazioak hazi diren (% 11,6)

Aurreko ekitaldian lurralde dinamikoena Gipuzkoa izan da, non hazi baitira hala esportazioak (% 11,6) nola inportazioak (% 3,6). Beste bi lurraldeetan kontrakoa gertatu da: Bizkaian % 7,2 murriztu dira esportazioak eta % 2,1 inportazioak. Araban jaitsierak % 3,0koa eta % 1,6koa izan dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko kanpo merkataritza lurralde historikoaren arabera. 2018-2019



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

10 pertsona baino gutxiagoko turismoen muga-zergen partida da, esportazioen artean, Euskal AEn pisurik handiena duena, eta % 4,4ko urte arteko jaitsiera izan du

2019an, 25 partida nagusietatik 10ek igoerak erregistratu dituzte, eta 15ek murrizketak izan dituzte, aurreko urteko aldi beraren aldean.

Euskal AEko esportazioaren partidarik garrantzitsuenak, 2019an, *10 pertsona baino gutxiagoko turismoak* eta *ibilgailu automobilen zati eta osagarriak* izan dira. Lehenengoak, 2.290 milioi euroekin, esportazio osoaren % 9,0 hartzen du, % 4,4 jaitsi ondoren; bigarrenak % 5,9ko jaitsierra izan du, eta 1.767 milioi esportatu dira, zeina den guztirakoaren % 7,0.

Rankingaren hirugarren lekuan *Petrolio-olio finduak* daude, 1.451 milioi euroko esportazio-balioa lortu baitute, hau da, guztizkoaren % 5,7, aztertutako aldirian % 19,9ko jaitsierra erregistratu ondoren. Garrantziari dagokionez, hurrengo partida, *Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak*, % 9,5 jaitsi da.

Euskal AEko arantzel-partida esportatzaile nagusiak. Mila eurotan. 2019

	2018	2019	%	19/18 (%)
Guztira	25.487.514	25.396.938	100	-0,4
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	2.395.833	2.289.966	9,0	-4,4
Automobilentzako zati eta osagarriak	1.876.962	1.767.156	7,0	-5,9
Petrolioaren olio finduak	1.810.711	1.451.244	5,7	-19,9
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	1.571.349	1.422.173	5,6	-9,5
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetarako	273.228	1.080.946	4,3	295,6
Kautxuzko pneumatiko berriak	964.282	956.987	3,8	-0,8
Txorrotetarako artikuluak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	521.631	516.781	2,0	-0,9
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	527.687	489.226	1,9	-7,3
Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak, burdina edo altzairuzkoak	624.010	476.094	1,9	-23,7
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafak eta tirak	441.413	379.043	1,5	-14,1
Eskuzko erremintetarako tresna trukagarriak edo makina-erremintetarako	389.556	308.942	1,2	-20,7
Burdina edo altzairuzko gainerako enbriaturak	327.047	290.381	1,1	-11,2
Temperatura altuko harriak-mundrunen destilazioaren olio eta gainerakoak	308.557	268.185	1,1	-13,1
Gidaria bane hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	184.426	267.031	1,1	44,8
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikoak kobre anodoak	143.311	254.866	1,0	77,8
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak...ores,...	242.264	223.911	0,9	-7,6
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	247.024	223.045	0,9	-9,7
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak...	182.420	219.502	0,9	20,3
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zultzeko barra hutsak	274.268	216.718	0,9	-21,0
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	176.638	201.218	0,8	13,9
Ardoa, mahats freskoarena	200.069	200.393	0,8	0,2
Metal arruntezko giltzarriak, sarriak, morroilo eta giltzak	182.052	194.585	0,8	6,9
Xafak bidez eraikitutako barrak, profilak, tutuak eta fundizioetako, burdinako edo altzairuko antzeko	160.793	189.043	0,7	17,6
Transformadore elektrikoak, bihurtutako estatikoak eta erreaktantzia-bobina	155.135	184.658	0,7	19,0
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	173.802	183.245	0,7	5,4

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Trenbideetarako automotorrak eta tranbia autopropulsatuak bosgarren lekuan daude esportazio-rankinean, % 295,6ko igoera nabarmena eta ia 1.081 milioi euroko salmenta-zifra izan baitute. Horrela, esportazio globalen beherakada ez da handiagoa izan, batez ere kontuan hartuta aurreko urtearekin alderatuta atzera egiten ez duen lehenengo hamahiru muga-zergen arteko partida bakarra dela.

25 muga-zergen partida garrantzitsuenen artean, bost automobilaren sektorearekin lotuta egon litezke, guztira esportatutako guztizkoaren % 26,4 izanik (6.703 milioi). Horietako bi erregaien sektorekoak dira, eta guztizkoaren % 6,8 osatzen dute, 1.719 milioi euroekin.

Arabako Lurralde Historikotik egindako esportazioak % 3,0 egin du behera. Hamar partida nagusietatik (guztizkoaren % 71,9), seik hazkunde-tasa negatiboak izan dituzte. Horien artean, automobilaren sektorearekin lotutakoak nabarmendu behar dira: *10 pertsona baino gutxiagoko turismoak* (-% 3,1), *Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak* (-% 9,4) eta *Kautxuzko pneumatiko berriak* (-% 0,6). Hala ere, *ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak* % 11,7 hazi dira.

Arabako lurralde historikoko arantzel-partida esportatzaile nagusiak. Mila eurotan. 2019

	2018	2019	%	19/18 (%)
Guztira	7.367.889	7.147.860	100	-3,0
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	2.319.944	2.247.917	31,4	-3,1
Zamak garraiatzeko gainerako ibilgailuak	1.565.905	1.418.606	19,8	-9,4
Kautxuzko pneumatiko berriak	360.709	358.531	5,0	-0,6
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	321.474	294.160	4,1	-8,5
Automobilentzako zati eta osagarriak	210.390	235.108	3,3	11,7
Ardoa, mahats freskoarena	180.179	183.158	2,6	1,7
Aireontzien parteak	144.687	149.599	2,1	3,4
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	107.546	116.983	1,6	8,8
Metal arrunteko ontzietarako tapoiak, tapak eta gainerako osagarriak	81.040	71.197	1,0	-12,1
Kobrezko zakarrak eta hondakinak	75.335	66.245	0,9	-12,1

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Bizkaian esportazioek % 7,2 egin dute behera. Gertakari horren zio nagusia dagokie partidei zeinak dauden "Erregaiak, olio mineralak eta horien destilazioaren produktuak" izeneko 27. kapituluaren barruan. Horrela, partida garrantzitsuena, *Petrolioaren olio finduak*, % 19,9 jaitsi da, eta *Tenperatura altuko harrikatz-mundrunen destilazioaren olio eta produktuak*, % 13,1. Urte arteko 759 milioietatik ia 400 muga-zergen partida horiei dagozkie. Esportatutako 10 produktu nagusien artean (guztizkoaren % 45,9 eta 4.462 milioi), hiruk bakarrik ez dute inolako beherakadarik izan salmentetan, eta horietako bat, gainera, % 77,8 hazi da, *Findu gabeko kobrea; fintze elektrolitikorako kobrezko anodoak*.

Bizkaiko lurralde historikoko arantzel-partida esportatzaile nagusiak. Mila eurotan. 2019

	2018	2019	%	19/18 (%)
Guztira	10.478.782	9.719.368	100	-7,2
Petrolioaren olio finduak	1.806.651	1.447.392	14,9	-19,9
Automobilentzako zati eta osagarriak	886.564	760.919	7,8	-14,2
Kautxuzko pneumatiko berriak	592.413	594.989	6,1	0,4
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xaflak eta tirak	382.497	324.092	3,3	-15,3
Eskuzko erremintatarako tresna trukagarriak edo makina-erremintatarako	363.926	283.037	2,9	-22,2
Tenperatura altuko harrikatz-mundrunen destilazioaren olio eta gainerakoak	308.557	268.184	2,8	-13,1
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikorako kobre anodoak	143.311	254.817	2,6	77,8
Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	208.085	180.655	1,9	-13,2
piezak eta osagaiak barne	167.089	179.596	1,8	7,5
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	288.122	168.768	1,7	-41,4

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Gipuzkoak, beste bi lurraldeek ez bezala, % 11,6ko hazkunde globala izan du aurreko urtearen aldean. Hazkunde nabarmen hori, batez ere, lurralde horretako 2019ko muga-zergen partida izarrean laburbiltzen eta kontzentratzen da: *Trenbideetarako automotorrak eta tranbia autopropultsatutak*. Horiek, % 289,5eko hazkundearekin (1.064 milioi), Gipuzkoak 2018arekin alderatuta izandako 888,9 milioiko hazkundearen % 89 dira.

Gipuzkoako lurralde historikoko arantzel-partida esportatzaile nagusiak. Mila eurotan. 2019

	2018	2019	%	19/18 (%)
Guztira	7.640.842	8.529.710	100	11,6
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetarako	273.228	1.064.226	12,5	289,5
Automobilentzako zati eta osagarriak	780.008	771.129	9,0	-1,1
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	493.738	457.329	5,4	-7,4
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	314.889	334.316	3,9	6,2
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	173.899	254.417	3,0	46,3
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak...	208.837	199.224	2,3	-4,6
Metal arruntzeko giltzarriak, sarriak, morroilo eta giltzak	169.503	182.946	2,1	7,9
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	147.724	176.956	2,1	19,8
Burdina edo altzairuzko gainerako enbriak	153.325	158.063	1,9	3,1
Hariak, isolatutako eroale elektrikoko kableak eta zuntz optikoko kableak	147.760	150.844	1,8	2,1

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)
Europar Batasunerako (EB-28) esportazioak % 3,8 hazi dira, eta inportazioak % 0,9

Gure esportazio guztien % 68,3, 17.340 milioi euro, Europar Batasunera (EB-28) egin dira. Horrek esan nahi du % 3,8ko igoera izan dela aurreko urtearekin alderatuta; orduan, esportazioen zenbatekoa 16.713 milioikoa izan zen.

EBtik etorritako salgaien inportazioak % 0,9 hazi ziren, baina, produktu energetikoen eragina alde batera utziz gero, % 1,0 igo ziren.

Euskal AEko kanpo-merkataritza, helmugako herrialdeen arabera. Mila eurotan. 2019

	Esportazioak	%	Inportazioak	%	Balantzea	Estaldura-tasa %
GUZTIRA	25.396.938	100,0	20.121.458	100	5.275.480	126,2
Frantzia	3.916.829	15,4	1.769.812	8,8	2.147.017	221,3
Alemania	3.839.993	15,1	3.012.561	15,0	827.433	127,5
Eresuma Batua	2.324.515	9,2	633.733	3,1	1.690.782	366,8
Estatu Batuak	1.789.241	7,0	941.150	4,7	848.091	190,1
Belgika	1.216.078	4,8	553.199	2,7	662.879	219,8
Italia	1.177.750	4,6	958.111	4,8	219.638	122,9
Portugal	1.015.814	4,0	436.123	2,2	579.691	232,9
Herbehereak	967.373	3,8	567.706	2,8	399.667	170,4
Polonia	582.064	2,3	301.045	1,5	281.019	193,3
Txina	496.644	2,0	1.336.432	6,6	-839.789	37,2
Mexiko	493.801	1,9	783.571	3,9	-289.770	63,0
Txekiar Errepublikak	383.432	1,5	211.677	1,1	171.755	181,1
Suedia	298.515	1,2	304.386	1,5	-5.871	98,1
Errusiar Federakun	291.529	1,1	1.142.954	5,7	-851.425	25,5
Austria	284.003	1,1	233.689	1,2	50.314	121,5
Turkia	258.446	1,0	234.868	1,2	23.578	110,0
Brasil	242.664	1,0	193.605	1,0	49.059	125,3
Suitza	242.092	1,0	131.611	0,7	110.481	183,9
Maroko	241.545	1,0	37.820	0,2	203.724	638,7
Norvegia	236.451	0,9	658.437	3,3	-421.986	35,9

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Horrela, Europar Batasunarekiko merkataritza-saldoa positiboa da (6.772 milioi), eta 535,9 milioi eurotan handitu da aurreko urtearen aldean; estaldura-tasa, berriz, % 159,5etik % 164,1era igo da.

Xehekiro, Europar Batasuneko herrialde gehienetara eginiko esportazioak gehitu egin dira, eta horien artean nabarmentzekoak dira Erresuma Batua (% 34,2) eta Belgika (% 24,1); aitzitik, Herbehereetara (-% 11,6), Italiara (-% 5,9) eta Portugalera (-% 3,6) eginiko esportazioak gutxitu egin dira.

Aldi berean, Europar Batasunetik kanporako esportazioak batez ere hiru herrialdetara bideratu dira: Estatu Batuetara (1.789,2 milioi), Txinara (496,6 milioi) eta Mexikora (493,8 milioi).

Inportazioei dagokienez, gehitu egin dira Belgikatikoak (% 22,1), Irlandatikoak (% 14,4) eta Alemaniatikoak (% 3,2ko hazkunde neurritsuarekin Euskal AEk 2019an egindako eresketa guztien %15era iritsi dira horiek). Europar Batasunekoak ez direnen artean, nabarmentzekoak dira Errusiako inportazioen hazkundera (% 196,2), 1.143 milioi guztira; Estatu Batuetakoak (% 86,6), 941 milioi; eta Txinakoak (% 16,3), 1.336 milioi. Errusiatiko ia inportazio guztiak eta Estatu Batuetatik datozenen erdiak energia-izaerakoak dira.

Para más información:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Servicio de Prensa: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62